



Arartekoaren 2014R-927-13 ebazpena, 2014ko maiatzaren 28koa. Beraren bidez Getxoko Udalari gomendatzen zaio trafiko araudia urratzeagatik jarritako zehapen bat indarrik gabe utz dezala (... zehapen prozedura).

Aurrekariak

1. (...)ek Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen, Getxoko Udalak indarrik gabe utz zezan *"sakelako telefonoa erabiliz gidatzeagatik"* ezarri zion zehapena, Udaltzaingoko agente batek haren ibilgailuaren aurka, (...) matrikuladuna, egin zuen salaketa dela-eta (... zehapen prozedura).

Erreklamazio egileak azaldu zigun ez zegoela ados zehapenarekin, uste baitzuen hori indargabetzen zuten egitate hauek frogatuta zeudela: a) salaketaren jakinarazpena ez zen behar bezala egin. Horrek, esan zigunez, zehapenaren baliogabetasuna ekartzeaz gain, salaketa egin zen unean ibilgailua gidatzen ari zen pertsona dokumentu honetan ezarritako epean identifikatzea galarazi zion; b) ez zen bera ibilgailua gidatzen ari zena, bere emaztea baizik; eta c) emaztea ez zen gidatzen ari une horretan; bazterbidean geldirik zegoen, autoa matxuratu zitzaiolako.

Jakinarazpenari dagokionez, interesdunak adierazi zigun ez zuela salaketaren ez zehapen prozeduraren izapidetzearen berri izan harik eta zehapenaren jakinarazpena jaso zuen arte. Gainera, esan zigun agente salatzaileak ez ziola bere emazteari salaketa unean bertan jakinarazi. Era berean, ez zion berari (agerliarrari) ere pertsonalki beranduago jakinarazi, ibilgailuaren titularra den aldetik. Izan ere, trafikoko erregistroetan ageri den helbidean egiten saiatu ziren jakinarazpena ez zen egin, jakinarazpena egin behar zuen postako langileak jakinarazpena ez egitea erabaki zuelako; berak azaldu zigunez, gutunontzian ageri ziren izenetako bat ere ez zen agerliarrarena eta horregatik ez zuen egin.

Kexa egin duen pertsonak adierazi zigun zehapenaren jakinarazpena jasotzerakoan prozeduraren instruktoreari jakinarazi ziola egun hartan ibilgailua gidatzen ari zen pertsona bere emaztea zela. Instruktoreak ez zuen identifikazioa onartu, ordea, salaketan identifikazioa egiteko eman zen epea amaituta zegoelako.

Interesdunak adierazi zigunez, udalari inguruabar horiek alegatu zizkion eta matxuraren lekuan autoa jaso zuen tailer mekanikoaren faktura aurkeztu zuen. Baina haren alegazioak eredu zko formula baten bidez ezeztatu ziren, alegazioak baloratu gabe eta ezeztatzeko arrazoi zehatzak azaldu gabe, salaketaren jakinarazpen okerrari buruzkoa izan ezik. Azken alegazio hori ezeztatzeko arrazoiak, berak esan digunez, ibilgailuaren titularraren betebeharrak eta administrazioaren betebeharrak izan ziren, hau da, helbide aldatetako trafiko



erregistroetan jakinaraztea eta jakinarazpenak erregistro horietan ageri den helbidera bidaltzea, hurrenez hurren.

Erreklamazio egileak azaldu zigun ez zegoela ados motibazio horrekin. Esan zigun jakinarazpena bidali zioten etxebizitza (trafikoko erregistroetan ageri dena) berea zela eta bertan jaso ohi zuela posta, nahiz eta alokatuta zeukan eta ez zen bertan bizi. Hain zuzen ere, etxebizitza horretan jaso zuen zehapenaren jakinarazpena, berak azaldu zigunez.

Uste zuen udalaren motibazioa onartu ahal izateko beharrezkoa zela aipatutako helbidean jakinarazpena egiten saiatzea eta berari egotzi beharreko kausa bategatik egin ezin izatea. Baina, berak daukan informazioaren arabera, besterik gertatu zen: postako langilea ez zen jakinarazpena egiten saiatu ere egin, pentsatu zuelako, gutunontzietan ageri diren izenengatik, bera ezezaguna zela helbide horretan, eta ez zuen beste jarduketarik egin jakinarazpena egin ahal izateko. Uste du jakinarazpena ez egitearen kausa postako langilearen jardunbide desegokiari dagokiola, berak egin behar ez zuen balorazio bat egin zuelako. Balorazio horren ondorioz ez zen jakinarazpena iritsi, eta ez bere jardunagatik.

Ibilgailua gidatzen zuen pertsonari dagokionez, erreklamazio egileak azaldu zigun agente salatzaillearen berrespen txostenak ziurtatu zuela "*gidaria*" emakumezkoa zela. Beraz, ezinezkoa da bera izatea gidaria.

Azkenik, urraketaren frogari dagokionez, interesdunak uste zuen aipatutako txostenak frogatzen zuela ibilgailua geldirik zegoela. Izan ere, agenteak dokumentuan agerrarazi zuen gidariari adierazi ziotela autoa martxan jarri behar zuela. Horrenbestez, bere ustez, autoa ez zen zirkulatzen ari une horretan. Erreklamazio egileak, gainera, udalari leporatu zion ez zuela baloratu berak aurkeztutako faktura, tailer mekanikoarena. Faktura horrek frogatzen du ibilgailua matxuratuta zegoela. Halere, esan digunez, udalak tailerrera deitu zuen, faktura egiazkoa zen jakiteko.

Interesdunak jakinarazi zigun, agente salatzaillearen berrespen txostena bi kontu horietan oso argia zen arren eta matxura frogatzeko aurkeztu zuen frogaz eztabaida ezina zen arren, udalak zehapena ezarri ziola, urraketaren arduradun gisa, ibilgailuaren titularra den aldetik.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta analizatu ondoren, Getxoko Udalera jo genuen, erreklamazio egileak bere defentsan aurkeztu zituen alegazioak eta frogaz balora zitzan. Gainera, eskatu genion azaltzeko zergatik uste zuten alegazio horiek eta frogaz horrek ez zuten baliorik zehapenaren balioan eragiteko.

Era berean, eskatu genien zehapen prozeduraren inguruko administrazio espedientearen kopia emateko.



3. Gure eskaerari erantzunez, interesdunak emandako zenbait datu berretsi zizkigun udalak: hau da, trafikoko erregistroetan ageri zen helbidean salaketa jakinarazteko egin zen saiakera, eta berak azaldutako arrazoiengatik ezin izan zitzaiola egin. Halere, udalak azaldu zigun bere ustez jakinarazpena eginda zegoela, legezko exijentziekin bat etorriz, eta erreklamazio egileak ezin zuela aurkaratu jakinarazi ez zuen helbide aldaketa bat. Era berean, Madrilgo Justiziako Auzitegi Nagusiaren epai bat aipatu zuen (administrazioarekiko auzien salako 1. atalak 1140/2012 errekurtsioan emandako 2012ko apirilaren 13ko epaia). Bertan, huts egin zuen jakinarazpen bat epaitu zen, interesdunak ez zuelako helbide aldaketa jakinarazi trafiko erregistroetan.

Udalak, ordea, ez zuen baloratu salaketaren unean jakinarazpena ez zuela egin.

Bestalde, onartu zuen agentearen berrespen txostenean azaltzen zela gidaria emakumezkoa zela. Hala eta guztiz ere, salaketa kexaren sustatzaileari zergatik egin zitzaion azaldu zuen: bera zen autoaren titularra eta salaketa egiteko unean ez zen gidaria identifikatu. Kexaren sustatzaileak gainera ez zuen gidaria identifikatu, jakinarazten saiatu ziren salaketan eman zitzaion epean. Baina udalak ez zuen argitu zergatik uste zuen interesduna zehatu behar zuela, onartu baitzuen ezinezkoa zela bera urraketaren arduraduna izatea.

Ibilgailuaren matxurari dagokionez, udalak adierazi zigun ez zegoela guztiz ziur autoak matxura bat izateari buruz. Zalantza hori agenteek esandakoan oinarritzen da: autoak alde egin zuen beraiek balizko urraketa gertatu zen lekura iritsi zirenean. Gainera, autoa mugitzeko esan ziotenean, gidariak ez zuen esan matxura bat zuenik.

Udalak, bestalde, zehapen prozeduraren administrazio espediente baten kopia eman zigun.

4. Udalak emandako informazioa eta dokumentazioa aztertu ondoren, uste dugu, hurrengo idatz-zatian jasotzen ditugun gogoetetan oinarrituta, zehapena baliogabea dela eta horregatik indarrik gabe utzi behar zela.

Geure balorazioa jakinarazi genion udalari, horrela jokatzeko prest zegoen azaltzeko.

Udalak zehapena indarrik gabe uztearen aurkakoa dela erakutsi du. Eman dituen argudioak lehenago emandakoen berdintsuak dira, hau da, balorazioa egiteko orduan jakin genituenak.

Bestalde, agente salatzaileak salaketa unean bertan ez jakinarazteko arrazoiak azalpena eman digu. Hau da, jakinarazpena egitea zirkulaziorako arriskutsua izan litekeela pentsatu zuen agenteak, bidearen inguruabarrak kontuan izanik.



Era berean esan digu interesdunak ez zuela aurkeztu matxura frogatzen zuen konponketa-agiririk.

Agente salatzaileak bidearen ezaugarriei buruz eta urraketaren xehetasunei buruz egindako txostena ere bidali digu, geure balorazioa baino beranduago egin zena. Balorazio horretan, agenteak berriro adierazi zuen ibilgailua gidatzen ari zen pertsona emakumea dela. Adierazi zuen ezin dela ziurtatu egin zuen telefono deia laguntza eskatzeko zenik. Dokumentu horretan, gainera, agenteak adierazi zuen matxura egon baldin bazen ere gidariaren jokaera ez zela egokia izan: egin behar zuena ibilgailua gelditu, seinaleztatu eta orduan telefonoz deitzea litzateke.

Udalak bere erantzunean onartzen du salatutakoa emakume bat dela.

Gogoetak

1. Esan dugunez, erreklamazio egileak lehenik eta behin adierazi zuen agente salatzaileak ez ziola salaketa unean bertan bere emazteari jakinarazi, bera baitzen une horretan gidatzen ari zena.

Trafiko araudia urratzeagatik egiten diren derrigorrezko salaketak unean bertan jakinarazi behar dira. Arau orokor hori legeak baimentzen dituen kasuetan, salbuespenak direnetan, bakarrik utz daiteke bete gabe. Geroratutako jakinarazpena balioduna izan dadin, gainera, beharrezkoa da jakinarazpena unean bertan ez egiteko egon diren arrazoi zehatz eta bereziak azaltzea salaketan, eta arrazoi horiek legeak eskaintzen dituen salbuespenetan sartu ahal izatea.

Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren gaineko Legearen testu artikuluduna onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 76. artikulua, kexari dagokion urraketa salatu zen egunean indarrean zegoen idazketan, ondokoa xedatzen zuen gai honetaz:

“1.Las denuncias se notificarán en el acto al denunciado.

2. No obstante, la notificación podrá efectuarse en un momento posterior siempre que se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que la denuncia se formule en circunstancias en que la detención del vehículo pueda originar un riesgo para la circulación. En este caso, el agente deberá indicar los motivos concretos que la impiden.

b) Que la denuncia se formule estando el vehículo estacionado, cuando el conductor no esté presente.



c) Que la autoridad sancionadora haya tenido conocimiento de los hechos a través de medios de captación y reproducción de imágenes que permitan la identificación del vehículo”.

Aipatutako exigentziak bete gabe gerora jakinarazten diren salaketek ez daukate baliorik zehapen prozedura hasi ahal izateko, eta akats hori prozeduraren hurrengo egintzei kutsatzen die, baita zehapen ebazpenari ere (Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren zehapen prozeduraren araudia onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 10. artikulua).

Aurrekarietan azaldu dugunez, Getxoko Udalak hasiera batean ez zigun kexaren alderdi horren berri eman, eta lehenbiziko aldiz gure balorazioari eskaini dion erantzunean justifikatu du jakinarazpena unean bertan ez egitea. Zehazki, adierazi du autoa gelditzea arriskutsua izan litekeela zirkulaziorako, agente salatzaileak egin zuen txostenean (gure balorazioaren osteko data daukana) oinarritua.

Agentearen txostenak ondokoa dakar gai horretaz:

“Lugar de la denuncia

Los hechos ocurren en la avenida (...), es una avenida de cuatro carriles de circulación, dos en cada sentido y separados por doble línea continua. Une los barrios de (...) con (...), habitualmente con gran densidad de tráfico como fue el día de los hechos.

Detalle de la infracción cometida

Circulo con el vehículo patrulla en dirección (...) cuando observo en el carril contrario un vehículo que circula a una velocidad anormalmente reducida, y que en el interior del él hay una mujer conduciendo y hablando por el teléfono móvil. Le indico sacando la mano por la ventanilla que cese de hablar y al paso le informo que va a ser denunciada (no se puede parar en el lugar por la peligrosidad de la vía).

Continuo con la marcha cuando veo por el espejo retrovisor que la mujer ha subido el coche a la acera unos metros más adelante.

A la mitad de esta avenida hay un cambio de sentido al que me dirijo para dar la vuelta y proceder a hablar con la conductora. Cuando llego al lugar, el vehículo ya no estaba, había abandonado el lugar sin poder identificar a la conductora”.



Baina zehapen prozeduraren administrazio espedienteak azaltzen du agenteak ez duela salaketan azaltzen salaketa ez zuela unean bertan jakinarazi, eta ez zituela azaldu horrela jokatzeko arrazoiak. Gai horretan ondokoa baino ez zuen adierazi dokumentu horretan: *"Se le informa verbalmente a la conductora de la denuncia"*.

Administrazio espedienteak, halaber, erakusten du erreklamazio egileari pertsonalki jakinarazten saiatu zen salaketak ez zuela jakitera ematen ez zela unean bertan jakinarazi ezta zergatik ez zen egin ere. Horri buruz hau baino ez zuen adierazi: *"Hitzez jakinarazi zaio"*.

Zehaztu behar dugu salaketaren agiria dela jakinarazi beharrekoa, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 74. artikulua agintzen duen edukiarekin. Jakinarazpen hori ezin daiteke izan salaketa egin dela ahoz esatea.

Esan dugunez, trafikoko araudiak exijitzen du agente salatzaileak salaketan azal dezala zergatik ez zaion dokumentu hori unean bertan salatutako pertsonari jakinarazi, salatutako pertsonak arrazoiak jakin ditzan eta bere defentsarako eskubidea erabil dezan.

Bestalde, oso garrantzitsua da, defentsako zuzenbidearen ikuspegitik, salaketa unean bertan jakinaraztea, batez ere salaketan salatzen den urraketan ezinezkoa delako salatzailearen eta salatuaren bertsioak ez diren frogak biltzea. Izan ere, horregatik, salatutako egitateek legez daukaten ustezko egiazkotasuna frogatu bakar eta uka ezina da (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 75. artikulua).

Jakinarazpena unean bertan ez egiteko arrazoiak baldin bada agenteak uste duela ibilgailua gelditzea arriskutsua izan daitekeela zirkulaziorako (Getxoko Udalak azaldu duenez), salatzaileak jakinarazpena egitea galarazten dioten arrazoiak azaldu behar ditu salaketan. EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiak honela azaldu zuen: *"339/90 Legegintzazko Errege Dekretuaren 77. artikulua eta 320/94 Errege Dekretuaren 10. artikulua ondo interpretatzeko, beharrezkoa da salaketa-buletinean zehatz-mehatz adieraztea zein kausa zehatzek galarazi dioten agente salatzaileei unean bertan salaketa salatutako pertsonari jakinaraztea. Agenteei egin duten salaketa jakinarazteko helburuz salatzaileak gidatutako ibilgailua geldiarazi ezin izan dutela modu egoki eta sinesgarrian azaldu behar dute kausa horiek"* (administrazioarekiko auzien salaren 3. ataleko martxoaren 27ko 299/2002 epaia).

Adierazi dugunez, kexaren kasuan, agente salatzaileak ez zuen salaketan agerrarazi salaketa ez zela unean bertan jakinarazi, eta ez zuen dokumentu horretan azaldu zergatik izango litzatekeen unean bertan jakinaraztea bide segurtasunerako arriskutsua. Bakarrik adierazi zuen salaketa ahoz jakinarazi zuela.



Administrazio espedientean ere ez da justifikatzen zergatik litzatekeen jakinarazpena unean bertan egitea arriskutsua bide segurtasunarentzat.

Arrazoitu dugun guztia kontuan izanik, uste dugu kasu honetan ez direla bete salaketaren unean bertan salaketa ez jakinarazteko legeak exijitzen dituen baldintzak. Jardunbide oker horren ondorioz, salaketa baliogabea da zehapen prozedura hasteko, eta baliogabeak dira zehapen prozeduraren hurrengo egintzak ere, zehapen ebazpena barne.

2. Erreklamazio egileak, era berean, adierazi zuen salaketaren gerorako jakinarazpena ez zela ondo egin. Izan ere, berak azaldu digunez, trafikoko erregistroetan ageri zen ibilgailuaren helbidean jakinarazpen pertsonala egiteko saiakerak huts egin zuen, hura egin behar zuen postako langileak jakinarazpena ez egitea erabaki zuelako, ikusi zuenean helbideko gutunontzian zeuden izenen artean zegoela berarena. Horregatik, ondorioztatu zuen helbide horretan ezezaguna zela.

Aurrekarietan azaldu dugunez, udalak uste du jakinarazpenak legearen exijentziak errespetatu zituela. Horretarako azaldu du, gogora ekar dezagun, hartzailea ezezaguna zela ibilgailuen erregistroan ageri zen helbidean, jakinarazpenak bidali ziren helbidean alegia. Horregatik, ediktu bidez egin behar izan zuen jakinarazpena (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 77. artikulua, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58 eta 59. artikuluei dagokienez). Gainera, uste du interesdunak helbide aldaketaren berri eman behar zuela. Jakinarazi ez zuen helbide aldaketa bat ezin du aurkaratu, Madrilgo Justiziako Auzitegi Nagusiaren epaia kontuan izanik. Epaia horretan, ibilgailuaren titularrak trafikoko erregistroei bere helbide berria ez jakinarazteagatik jakinarazpen pertsonalak huts egin zuen kasu bat aztertzen da (2012ko apirilaren 13ko epaia, administrazioarekiko auzien salako 1. atalak 1140/2012 errekurtsioan emana).

Bestalde, udalak eman digun administrazio espedienteak ondoko egitateak azaltzen ditu:

- a) (...) zenbakidun postako langilea salaketaren jakinarazpen pertsonala egiten saiatu zen, 2012ko ekainaren 29an, ibilgailuaren helbidean (...). Jakinarazpenak huts egin zuen, hartzailea ezezaguna zelako helbide horretan.
- b) postako langile bera helbide berean zehapen ebazpena pertsonalki jakinarazten saiatu zen, 2012ko irailaren 6an eta 7an. Bi saiakerek huts egin zuten, hartzailea ez zegoelako. Baina langileak gutunontzian utzi zuen iritsiera-oharra, nahitaezkoa denez, eta jakinarazpena azkenean posta bulegoan bertan egin zitzaion irailaren 11n.



- c) postako langileak 2012ko irailaren 25eko agiri batean argitu zuen salaketaren jakinarazpena itzuli zuela, arrazoi honengatik: *"porque los nombres que aparecen en el buzón no coinciden con el consignado en el envío"*.

Gure iritziz, aipatutako gertakariak kexaren alderdi hori ere frogatzen dute. Izan ere, erakusten dute salaketaren jakinarazpen pertsonala ibilgailuen erregistroan ageri den ibilgailuaren helbidean egin ezin izatearen kausa ez zela erreklamazio egileak ez zuela helbide berria jakitera eman, baizik eta postako langileak egin zuen balorazioa: pentsatu zuen hartzailea ezezaguna zela helbide horretan, gutunontzian ez zelako haren izena ageri.

Kexaren sustatzaileak, noski, helbide aldaketa jakinarazi behar zuen, legeak agintzen duenez. Baina, betebeharrak ez betetzea ez zen izan, erakunde honen ustez, salaketaren jakinarazpen pertsonalak huts egiteko arrazoiak, administrazio espedienteak dioenez. Eta gure ustez, hori da erabakigarria jakinarazpen pertsonala behar bezala egin zen edo ez baloratzeko. Izan ere, arestian azaldu dugunez, zehapen ebazpenaren jakinarazpen pertsonala ondo egin zen helbide berean. Horrek erakutsiko luke erreklamazio egilea ez zela ezezaguna helbide horretan.

Bestalde, uste dugu udalak euskarriztat hartzen duen epaia kexa honetatik ezberdina den kasu baterako eman zela. Hau da, epai horren kasuan, jakinarazpenak huts egitearen kausa da helbide berria ez zaiela trafikoko erregistroei jakinarazi. Aztertzen ari garen kasuan, errepikatu behar dugu, kausa ez zen hori izan, gure ustez, baizik eta postako langileak egin zuen balorazioa, zehapen ebazpena egin zuen baloraziotik ezberdina izan zena.

Zehaztu behar dugu, halaber, interesdunak ez duela aurkaratu jakinarazi ez duen helbide aldaketa bat, justifikatu ahal izateko salaketaren jakinarazpena ez zela behar bezala egin, udalak dioenez. Aurkaratu duena besterik da: jakinarazpena bidali zen helbidean ez zela ezezaguna (hori baita jakinarazpenak huts egiteko kausa).

Horregatik, salaketa egin ondoko une batean salaketa jakinaraztea lege onargarria balitz ere (eta erakunde hau ez dago horrekin ados, arestian azaldu dugunez), izapide hau gaizki egiteak ere baliogabe bihurtuko luke prozeduraren hasiera eta zehapen ebazpena baliogabe bihurtuko luke.

- Interesduna, era berean, ibilgailuaren titularra izateagatik zehatu zutelako kexatu da, nahiz eta zehapen prozeduran frogatu zen ibilgailua gidatzen ari zen pertsona emakumea zela, eta ez gizona, salatzaileak hala argitu baitzuen. Uste du inguruabar horrek bere erantzukizuna garbitzen duela urraketan.

Uste dugu administrazio espedienteak kexa hau ere berresten duela. Aurrekarietan azaldu denez, agente salatzaileak salaketan adierazi zuen gidaria



emakumea zela, eta ez gizona: *"Gidatzen ari den emakumeari salaketa hitzez jakinarazi zaio"*. Hori berrespen txostenean errepikatu zen: *"Ibilgailua gidatzen ari zen emakumeak ez zien agenteei inola ere adierazi..."*.

Udalak bertan eman digun informazioan berretsi du gidaria emakumezkoa dela, eta agente salatzailleak errepikatu egin du, gure balorazioaren ondoren egin duen txostenean.

Horregatik, uste dugu erreklamazio egileari ezin zaiola erantzukizunik leporatu urraketa honengatik, administrazio espedienteak eta udalak aitortu baitute bera ezin zela urratzailea izan (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 69. artikulua eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 130. artikulua).

Lehenago esan dugunez, udalak ez digu azaldu zergatik zehatu duen interesduna, bera urraketaren erantzulea ez dela onartu baldin badu. Horri erantzun dio salaketaren jakinarazpena kexaren sustatzaileari bidaltzeko arrazoa izan zela ibilgailuaren titularra bera zela. Izan ere, gidaria ez zuten salaketa egiteko unean identifikatu, eta berak ere ez zuen identifikatu, jakinarazten saiatu zitzaion salaketan emandako epean.

Argitu behar dugu interesdunak ez duela auzitan jartzen jakinarazpena berari bidaltzea, ibilgailuaren titularra den aldetik, salaketa unean bertan jakinarazi ez zenez gero. Salatu duena da udalak zehapena berari ezarri diola salatutako ibilgailuaren titularra izateagatik, nahiz eta aldi berean onartu duen ezinezkoa dela bera izatea urraketaren egilea.

Administrazio espedienteak, gainera, azaltzen du erreklamazio egileak gidaria identifikatu zuela zehapen prozeduraren berri jakin eta berehala. Horri gaineratzen badiogu urraketaren erantzulea bera ezin zela izan, gure ustez, erantzukizuna leporatzeko erabakia berraztertu behar izan zuten.

4. Erreklamazio egileak uste zuen zehapen prozeduran argi geratu zela bere emaztea ez zela gidatzen ari salaketaren unean eta ibilgailua geldirik zegoela. Izan ere, agente salatzailleak berrespen txostenean agerrarazi zuen gidariari agindu ziotela berriro martxan jar zedila. Horrek, bere ustez, esan nahi du ibilgailua ez zela zirkulatzen ari une horretan. Gainera, uste du udalak kontuan izan behar zuela ibilgailua matxuraren lekutik jaso zuen tailer mekanikoaren faktura, hori matxuraren froga bat baitzen, bere ustez.

Erakunde honen ustez, agente salatzailleak salaketa berrestean erabilitako hitzek kexaren alderdi hori ere baietsi ahal dute. Izan ere, *"martxan berriro jartzea"* esaera erabili zuen agenteak, eta horrek ulertzea ematen du ibilgailua ez zegoela martxan.



Udalak ez du kontu hori argitu eta ez du berariaz aipatu. Halere, lehenago adierazi dugunez, agente salatzaileak gure balorazioaren ondoren egin duen txostenean azaldu du emakume bat ari zela gidatzen. Tailerraren faktura ere ez du baloratu. Horri buruz esan digu interesdunak ez duela konponketa-parterik aurkeztu, matxuraren frogagarri denik.

Administrazio espedientean, ordea, erreklamazio egileak aipatutako faktura ageri da. Bertan, salatutako ibilgailuan salaketa egunean egindako lana azaltzen da: *“Ibilgailua martxan jartzeko hara joatea, tailerrera ekartzea konpontzeko, gasolinaren akatsa, motorra azeleratzean gelditzen da, erregaiaren iragazkia egiaztatuta eta ordezkatu”*.

Fakturak, gure ustez, frogatzen du ibilgailuak matxura izan zuela. Ez du balio, ordea, geldirik zegoela frogatzeko, ezta gidaria gidatzen ari zenean telefonoz ez zela hitz egiten ari frogatzeko ere.

Uste dugu interesdunak horri buruz azaldu zituen kontuak argitu behar izan zituela udalak, eta interesdunak aurkeztutako faktura baloratu behar izan zuela.

Nolanahi ere, uste dugu erreklamazio egileak zehapena jaso duen urraketagatik erantzukizunik ez izateari buruz egin ditugun gogoeten ondorioz egitateen frogaren balorazioak ez duela izateko arrazoirik, zehapenaren balioaren ikuspegitik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Getxoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

(...)eri (...) zenbakidun prozeduran, *“sakelako telefonoa erabiliz gidatzeagatik”* ezarri zion zehapena indarrik gabe uztea.